

A landscape photograph showing silhouettes of trees and hills against a bright, hazy sky at sunset or sunrise. The foreground is dark, with the silhouettes of trees and a hillside. In the middle ground, there are rolling hills and a prominent, flat-topped mountain peak on the right. The sky is a uniform, bright yellowish-orange color.

ekosistemak

LH 5. mailetako ikasleek egindako maketen katalogoa

Gaur egungo gizartean, ekosistemak zaintzeko eta espeziak babesteko kontzientzia indartzen ari da.

Zer egin dugu LH5.mailako ikasleek asmo honetan laguntzeko? Bada... eskualdeko ekosistemen maketak egin ditugu. Horretarako, ingurune bati sakon behatu eta hari buruzko informazioarekin fitxa teknikoa osatu dugu.

Taldeak osatu eta hautatutako ingurune naturalaren maketa egin dugu plastilina eta beste material batzuk erabiliz (pandemiaren ondorioz, talde txikiak osatu ditugu).

Maketan, ingurune fisikoa ezezik, bertako bizidunak ere islatu ditugu, animalia zein landareak, eta giza jokabide zuzenen zerrenda idatzi dugu.

Zerretarako? Horrela, Ikastolako haurrok jokabide zuzenak bereganatu ditugu, naturaren aurrean ditugun ohitura kaltegarriak ekiditeko.

Aresketamendi





Mendigorri mendia



Gorbeialdea



Babio mendia

Maroñoko urtegia





Goizale aterpea eta
Tologorri mendia

Gorbeia





Maroñoko urtegia

Maroñoko urtegia





Maroñoko urtegia



Maroñoko urtegia





Nerbioiko urjauzia



Panabarra eta Pagolar mendiak



San Pedro mendia

Babio mendia



Tologorri mendia



JOKABIDE DESEGOKIAK

Baseri inguruko zelaiak zapaltzea, behiek ez baitute jaten zapalduetako belarra.

Plastikozko hondakinak larrean botata uztea, animaliek plastikoa jan ondoren hil egin daitezkeelako.

Txorien habiak puskatzea, txoriek ugaltzeko arazoak izango dituztelako.

Naturan ikusitako animaliak etxera eramatea, gure etxeak ez baitira animalia hauentzako leku egokiak.

Kanpotik ekarritako maskotak nonnahi uztea, espezie inbaditzaile bihur baitaiteke, bertoko espezieak desagertaraziz.